

Arrate Egaña | 'Itzalen distira'

# Ipuinen hegemoniatik urrunduta, argi-itzaletik idatzitako narrazioak

Zortzi egora «ohiko bezain arraroak, tragikomikoak» dira Arrate Egañak idatzitako 'Itzalen distira' liburuaren abiapuntu, ezberdinak baina oinarrian «obsesioa, ihes egiten dien denbora, heriotza eta sakrifizioa» dituztenak



Arrate Egaña, 'Itzalen distira' liburuaren esku artean duela. / EREIN ARGITALETXEA

**JON AGIRRE**  
Asteartea, 31 maiatza 2022, 15:37

Etxe baten plano egiterakoan lehen zirriborrea aurkezten da eta jabea bertara bizitzera joaten den arte aldaketa mordoa izan ditzake, askotan onerako eta aberasteko. Hala izan da astearte honetan Arrate Egañak Donostian aurkeztu duen 'Itzalen distira' liburuaren sortze-prozesuaren kasuan.

Zortzi narrazio osatzen dute 'Itzalen distira', bata bestearengatik independenteak narrazio ikuspegitik baina batasun sentsazioarekin gai zen estilo aldetik. Zortzi egora «ohiko bezain arraroak, tragikomikoak» dira abiapuntu, ezberdinak esan bezala, baina oinarrian «obsesioa, ihes egiten dien denbora, heriotza eta sakrifizioa» dituztela. Bilduman zehar narrazioak kontrakoen jokoak islatzen dute, «nahiko ideia zaharra eta ia topikoa» Egañak aitortu bezala, baina enfoketaren arabera. Zehazki, itzala eta argiaren arteko jokoarekin. «Denok gara desberdinak eta batzuentzat onura dena besteentzat kalte izan daiteke. Zure iluntasunean nire argia aurki dezaket», azaldu du egileak. Adibide bezala bota du 'Mercy eman' narrazioa, familia bateko hiru emakume zerbait esateko beharra eta beldurra sentitzen duten pasarteak. Gertakari oso ilun baten ostean, dena eklipsatuta dagoenean, esan beharrekoa esateko indarra topatzen dute.

### Ausardia ipuinak garatzerakoan

Ironia puntu bat badu pertsonaia batzuek faltan duten ausardia hori Uxue Razquin Erein argitaletxeko editoreak Egañarengan idazkeratik nabarmendutako ezaugarrietako bat izatea. Bai narrazioak planteatzerakoan zein hauek garatzerakoan. «Ipuin guztietan bat-batean 'dena' askatu eta logika eraisten da. Gainera bakoitzean 'dena' hori ezberdina da». 'Itzalen distira' liburuaren egileak «kezkatzen nauten gauzak» kontatzen saiatzen dela zehaztu du, «gristasunetik eta hegemoniatik urrunduta». Horretarako fikzioaz baliatu da, nahiz eta pertsonaia errealistak diren. «Psikologia bat dute, ez daude karikaturizatuak. Ez naiz oso intimista, elkarrizketa eta pentsamenduen bitartez sakontzen saiatu naiz, emozioz kargatu gabe».

Razquinek adierazi duenez testuaren lehen zirriborrea duela urtebete jaso zuen eta ordutik harreman estua izan du Egañarekin. «Idatzi eta berriidatzi aritu gara, horrek erakusten du Arratek literaturarekiko duen pasioa». Ez da egilearengandik azpimarratu duen bertute bakarra. «Zortzi narrazioetan zehar egunerokotasuna bihurtzen du, pertsonaien egoera azaldu eta bat-batean krak bat dago, dena aldatzen duen gertakaria. Eta ez dakizu zein izango den irtenbidea».

Bide horretan hizkuntza zuzena darabil Egañak. «Horrelakoa gustatzen zait eta imitatzen saiatzen naiz». Ildo beretik doaz narrazioen tituluen zehaztasuna. Buelta gehiago eman zizkioten lanak egun duen izenburua izan arte. «Handicap handia da, maiz du ipuinen baten izenburua». Kasu honetan argi eta ilunen jokoak islatzen du. Pertsonaia izaeratik, emakumearen papera nabarmetzen saiatu dela kontatu du, hauen presentzia aldarrikatzeko modura. «Emakumea oinarria da eta, bestetik, gizonen egoera ohikoa ez den paperetan kokatu dut: bortxatua izan dena, negar egiten duena... Bihurrikeria hor gustatzen zait». Azala bera ere Egañak aspaldi egindako koadro batean dago oinarritua. «Txoriaren irudia sakrifizio batena da, argi bat ilunpean».

**'Itzalen distira'**


Egilea: Arrate Egaña

Argitaletxea: Erein.

Estiloa: Narratiba.

Orri-kopurua: 148.

Prezioa: 17 euro.



Prozesu edo ibilbide hori Egañak «gela askoko» etxe batekin alderatu du. «Ipuin batzuk ez ziren familiaikoak eta giltzez itxi nituen, beste batzuk jantziago zeuden eta beste batzuek pintatzea behar zuten», azaldu du. Su motelean egindakoa izan dela adierazi du eta emaitzarekin oso gustura geratu dela. Aurkezpenean oso eskertua azaldu da bidean jasotako laguntzagatik. «Uxuek segituan harrapatu zuen kontatu nahi nuena, inguruko iritziarekin batera oso garrantzitsua izan da».

Razquinek aipatu duenez zortziak bata bestearengatik independenteak dira, ezberdinak, baina oinarri komunarekin: «obsesioa, ihes egiten duen denbora, heriotza eta sakrifizioa». Ez modu biblikoan ulertua, «besteen onerako egindakoa» baizik.

Egañak aurrez hogeita hamar liburu argitaratu ditu, hainbat generotakoak eta beste hainbeste publikori bideratuak. Hauekin zenbait literatur sari irabazi ditu gainera, besteak beste Baporea (1999), Erroxape (2000), Emakumeak Kontari (2002), Lizardi (2011), Gabriel Aresti (2012) eta Mikel Zarate (2015).

**TEMAS** Erein Argitaletxea, Euskal Literatura, Euskera, Liburuak, Zabalik

TENDENCIAS

### Comentarios

PATROCINADA





### Fotos







### Vídeos

## Los privilegios del ángel, de Dolores Redondo

### EL DIARIO VASCO

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.  
Domicilio social en Mikelletegi Pasealekua 1, 20009 - Donostia-San Sebastián



En lo posible, para la resolución de litigios en línea en materia de consumo conforme al Reglamento (UE) 524/2013, se buscará la posibilidad que la Comisión Europea facilita como plataforma de resolución de litigios en línea y que se encuentra disponible en el enlace <https://ec.europa.eu/consumers/odr/>.

### vocento26

ABC

ABC Sevilla

Hoy

El Correo

La Rioja

El Norte de Castilla

Diario Vasco

El Comercio

Ideal

Sur

Las Provincias

El Diario Montañés

La Voz Digital

La Verdad

Leonoticias

Burgosconecta

Piso Compartido

Oferplan

Pisos.com

Mujerhoy

XL Semanal

Pidecita

TopComparativas

WomenNow